



Zuzia

HATZIESIA APURTUZ, BIDEA ZABALDUZ

8. Zenbakia.

2022ko uztaila.

BERRIAK



KATEAK HAUTSIZ HERRIA DEFENDATU

Uztailaren 14an, Euskal Herriko iparraldean azpiratuta eta okupatuta mantentzen duen Frantziako estatuak bere egun nazionala ospatzen du. U14 kolektiboak, joan zen urtean abiarazitako dinamikari jarraiki, aurten ere manifestazioa burutu du Donibane Lohizuneko kaleetan barrena. Hala ere, frantziar besta nazionalaren

aurkako manifestazioa bigarren urtez burutu arren, honen aurkako borrokak tradizio luzeagoa dauka. Horrez gain, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan aritutakoak nahiz preso aurkitzen direnak ekarri zituzten gogora.

Kolektiboaren arabera, frantziar besta nazionalak Euskal

Herriaren asimilazioan funtzio garrantzitsua betetzen du oraindik ere, joan zen urteko manifestazioaren ondorioak ekarri zituztelarik gogora. Halaber, Donibane Lohizune hautatu zuten, frantses turistentzako erakusleiho exotiko bilakatutako herria izateagatik. Horrekin batera, gogora ekarri zuten aurten Ipar

Euskal Herrian 13 atxiloketa eman direla, Euskal Herriak pairatzen duen okupazio egoeraren erakusgarri garbia delarik. Horrela, kolektiboak, elkarbizitzaren eta bakearen izenean izan arren normalizatzeko egiten diren omenaldiak baztertzeko eta hauen kontraesanak azalarazteko beharra azpimarratu zuten.

JARDUN koordinadorak U14 kolektiboak deitutako mobilizazioarekin bat egin eta hau babestu zuen. Izan ere, koordinadorak ezin du ulertu eta, are gutxiago, onartu estatuek

inposatutako muga artifizialen zein instituzio ezberdinen ondoriozko Euskal Herriko errealitatearen banaketa. Uztailaren 14a ez da lpar Euskal Herriaren okupazio militar eta asimilazio kulturalaren ikurra bakarrik, Euskal Herri Langileak frantziar estatuaren aldetik pairatzen duen nazio zapalkuntzaren ikurra baizik. Klase gatazkatik kanpo uler ezin daitekeen nazio zapalkuntza, Euskal Herri Langileak sistema kapitalistapean espainiar zein frantziar estatuen partetik jasaten duen asimilaziora bideratutako nazio zapalkuntza,

Euskal Herriaren beraren nazio existentziaren ukazioa duena oinarri. Gauzak horrela, JARDUN koordinadorak, U14 bezalako kolektiboek antolatutako mobilizazioak izaera lokaleko dinamikak beharrean garrantzi estrategikoa duten eta, hortaz, parametro nazionaletan jorratu behar diren elementutzat jotzen ditu, Euskal Herriko langileriaren batasuna zein pairatzen dituzten zapalkuntza ezberdinak azalarazteko duten potentzialitatea dela medio.

KAPITALISMOA, INGURUMENAREN SUNTSITZAILEA

Buruntzaldeko JARKI-ko kideek, "Kapitalismoa, ingurumenaren suntsitzailea" lelopean, klase ekologismoa eskualdean lantzeko eta honen inguruko kontzientzia sustatzeko ekimenak burutu zituzten. Horrela, ekainaren 3an, Andoaingo gaztetxean, kapitalismopeko ingurumenaren auziaren inguruko hitzaldia burutu zuen antolakunde iraultzaileak. Honekin batera, ekainaren 11n, mendi martxa egin zuten Buruntzara, honen tontorrean eskualdeko txikizioak agerian uzten zituen mapa ezarri

zutelarik. Buruntzako JARKI-ko kideek gerora salatu dutenez, jada ekainaren 12rako desagerrarazita zegoen eta, beraz, uztailaren 21ean berriz kokatu zuten hau. Hala ere, hurrengo egunean mapa berriro ere erasotua izan zen. Hasiera



batean, mapa eta bere egitura desagerrarazi bazuten ere, bigarren erasoan, maparen papera markotik atera zuten. Hau inguruko sasetan aurkitu zuten eta berriro ere bere lekura itzuli zuten.



MAHAINGURUA GASTEIZEN

Gasteizko JARKI-ko kideek Bilboko AZET etxebizitza langile klasearen berezko sindikatuak eta Bilboko Langile problematikak aztertu eta hauen Autodefentsa Sareak hartu zuten inguruko ikuspuntuak parte. Antolakunde iraultzaileak partekatzeo, mahaingurua dinamika hau maila taktikoan antolatu zuten ekainaren 9an, JARDUN-en parte ez diren Gasteizko gaztetxean. taldeekiko elkarlana eta Mahainguru honetan, JARKI dinamika amankomunak antolakunde iraultzaileaz gain, sustatzeko asmoaz gain,

langileriaren problematika ezberdinei aurre egiten diharduten antolakunde ezberdinen esperientziak eta ikuspuntuak partekatzea zuen helburu.

EZ ZARETE ONGI ETORRIAK, ALDE HEMENDIK!

Uztailaren 10ean, Espainiako estatuek beren borroaren erregea, Felipe V.a, alegia, laguntzarekin garaipen poliziala Ermuan izan zen Miguel Angel eta biktimen inguruan Euskal Blancori egindako omenaldian. Herri Langilearen zapalkuntza Espainiar erregearen bisita, betikotzeko eta zilegiztatzeko

eraikitzen ari diren errelatoaren gerraren baitan ulertu daiteke soilik. Horrela, erregearen presentziak, espainiar instituzioetatik inposatu nahi diguten errelatoa indartzeaz gain, okupazio militarrek



**EZ ZARETE ONGI
ETORRIAK, ALDE
HEMENDIK!**

ahalbidetutako normalizazio egoeraren erakusgarria izan behar zen, txakurren izugarritzko presentzia pairatu behar izan zuelarik Ermuak, bisita hau gauzatzeko. Hori dela eta, Deba Barrenako JARKI-ko kideek erregearen presentzia salatzeo eta arbuiatzeko kanpaina komunikatiboa burutu zuten Ermuan. Honekin batera, maiatzean Eibarreko munipen militarizazioaren harira abiatutako kanpainaren baitan identifikatutako bi pertsona deitu zituzten zipaioek txakurtegira bertaratzeko, inongo zitazio judizialik gabe.



MUNTAI POLIZIALIK EZ!

Ertzaintzak uztailaren 25ean 3 gazte atxilotu zituen, taberna batean zipaio bati eraso egin izanaren aitzakiapean. Honen ondoren, Euskal Herri Langilea jazarrita mantentzeko buru-belarri diharduten kareta ezberdinetako politikariek eta euren zerbitzupean leial diharduten hedabideek, garrantzi berezirik ez zuen tabernako eztabaida bat izan beharrean, zipaio izanagatik emandako erasoaren bertsioa asmatu zuten. Horrez gain, astebete lehenago Mutrikuko jaietan zipaio batek gazte egunean sortutako zalapartarekin uztartu zuten hau.

Euskal Herriak pairatzen duen okupazioaren testuinguruan ulertu eta kokatu behar dira horrelako gertakariak. Izan ere, instituzio burgesek eurak babesteko langileria zapaltzen diharduten borreroak babestu eta zilegiztatu beharra dute, euren lana ahalbidetu eta, aldi berean, euren presentzia normalizatzeko. Txakurren izana eta izatea herri langilearen

begietan justifikaezina denez gero, gezurrak, manipulazioak eta intoxikazioak dituzte bidelagun euren xedean; bai Mutrikuko, bai Gasteizko gertakariak zipaioen presentziak eta jazarpenaren eskutik sortutako egoeran bakarrik ulertu baitaitezke, bi kasuetan zipaio bana direlarik gatatzaren jatorria eta erdigunea. Hau ez da berria Euskal Herri Langileari dagokionez. Baina biolentziaz mintzo baldin bagara, esan beharra dago, tabernan eman ez zena, zenbait ordu geroago zipaioen eskutik jasan behar izan zituztela Gasteizen atxilotutako 3 gazteek. Behin atxilotutakoan hainbat kolpe jasan ondoren, txakurtegiaren lo egin zezaten ekiditeko eta, aldi berean, atxilotutakoak probokatzeko, Espainiako himnoa jarri zuten, argiak piztuta mantendu zituzten eta ziegako ateetan kolpeka aritu ziren. Hedabideetan biktimatzat saldu nahi dizkiguten arren, ez dago zipaioen borrero eta txakur izaera ezkuta dezakeen karetarik, eurek aski eta sobera

baitaukate beti euren benetako aurpegia zein den erakusteko.

Gauzak horrela, mugimendu independentista eta sozialista kriminalizatzen eta zipaioak babesten ziharduten bitartean, taberna batean inongo larritasunik ez zuen gertakari batetik jada aurretik Euskal Herrian ezaguna den muntaia eraikitzen zihoazen bitartean, JARDUN-en parte den ASKE antolakunde antierpresiboak atxilotutako gasteiztarrei elkartasuna eta babesa adierazteko eta zabaltzen ari zen muntaiari aurre egiteko, mobilizazioa deitu zuen uztailaren 26an. Izan ere, ASKE-ren arabera, "txakurren inpunitatea ekiditeko, salaketa eta mobilizazioa izan behar dira Euskal Herri Langilearen tresna politikoa, Euskal Herriak argi utzi behar baitie txakurrei ez dituela euren praktika mafiosoak onartuko. Herri langilearen aurka dihardutenek ez baitute lekuri gure kaleetan, herri langilearen partetik mespretxu osoa merezi dutelarik."



KAPITALISMOAREN AISIALDIAN BARRENA



Aisialdia norberak bere nahiaz burututako ekintzen multzoa da, denbora librean burutzen direnak. Lanpostutik ateratzen garenean gure lan-indarra birproduzitzeko ekintzak burutu ostean (elikatuz, zaindu, arropa garbitu...) geratzen zaigun denbora librean kokatzen da aisialdia. Aisialdian burututako ekintzen helburuak ugariak dira: ludikoa, kulturala, osasuntsu mantentzea, erlaxatzea, plazerra sentiaraztea... Aisialdia pertsonon oinarritzko beharra da, buruari zein gorputzari gustuko dugun erabilera ematea bilatzen dugularik.

Aisialdiaren atal garrantzitsu bat denbora eta espazioa beste pertsonekin partekatzean datza, zeharka bada ere, gustuko ditugun ekintzak era kolektiboan burutuz, norberak atsegin duen esparruan talde bateko partaide sentiaraztea, alegia. Azken finean, animalia sozialak garen heinean, taldearen parte sentitzeko beharra dugu pertsonok, eta aisialdiaren kasuan logika nagusitik alboratuta geratzen bagara, gaizki sentitzeko joera azaleratzen da gure baitan.

Aisialdia aktiboa izan daiteke, burutzen duen

pertsonak onura jasotzen duenean, edota pasiboa, ekintzak burutzen dituen pertsonaren garapena sustatzen ez duen aisialdia.

KAPITALISMOAK SUSTATUTAKO AISIALDIA EREDUA

Hamarkadetan zehar garatutako langile borroken ondorioz, XX. mende erdialderako 8 orduko lanaldia legedi burgesean onartua zegoen europar kontinenteko mendebaldean. Lanaldia murriztearen aldarrikapenak zergati ekonomiko zein sozialak ditu atzean, denak garrantzitsuak: gainbalioaren erauzketa kantitatea murriztea, denbora librea handitzea gorputza eta burua hobeto zaintze aldera, eta antolaketa politikorako eta borrokarako baldintza materialak garatzea, besteak beste. Hau da, askatasun gehiago erdiestea.

Lanaldia murrizten joan zen heinean, kapitala denbora librearen potentzialtasun iraultzaileaz jabetu zen, eta langileon denbora librea antolatzeraz eta borrokatzeraz eskaini ordez,

denbora librearen kontsumitzera bideratu behar zuela jabetu zen, ekoizpen kapitalistaren gorpila gelditu ez zedin. Hau da, burgesen ikuspegitik langileak ez zeudenez egun osoa lanean, behintzat hauek kontsumitzaile bilakatuta sistemak garatzeko aukera mantentzea zuen helburu. Horrela, lanaldiaren murriztapenak langileen antolaketa ahalbidetzeko gaitasuna anulatzea zuen helburu klase burgesak, egun mantentzen duen helburu bera.

Bizitza eredu kontsumistan, publizitatea edota status sozialen propagandarekin, langileen aisialdia kontsumitzera murrizten da, oro har, aisialdian dirua inbertitu ezean, etxean aspertzea delarik aisialdi alternatiba nagusia langileontzat.

Status ekonomikoa autoa, etxebizitza edota arroparen bitartez erakusten den moduan, aisialdian burutzen ditugun ekintzek gure maila ekonomikoa ere adierazten dute, ideologia burgesaren "nor baino nor" jarreraren txertatzen delarik langileen arteko status lehia. Azken finean, aisialdia status ekonomikoaren adierazlea da, aisialdi mota batzuk zuzenean luxuzkoak direlarik.

Hortaz, kapitalismoaren aisialdia merkantziak eta zerbitzuak kontsumitzera bideratzen da,

kontsumo honen goraipamenaren bitartez, langileen denbora librearen erdigunean kokatzen delarik kontsumo hau. Horrela, alde batetik, sistema kapitalistaren gorpila indartzen da, eta beste aldetik, langileen denbora librearen potentzialtasun iraultzailea bertan behera gelditzen da. Bitartean, aisialdi eredu ez kontsumistak baztertuak izaten dira, bai hedabideetan, bai gizartean, oro har. Edota gerta liteke aisialdi eredu ez kontsumistetan logika kapitalista barneratzen joatea ere. Adibide esanguratsua da mendiarekiko harremana: bertara patxadaz joatetik, mendi irteerak erlojuaren aurkako lehiaketa bilakatu dira, baita mendizaleen arropa erakusketa ibiltariak, status-aren adierazle gisa.

Argi eta garbi esanda, kapitalismoak aisialdi alienantea sustatzen du, lehian, status erakusketan eta kontsumoan oinarritzen dena. Eredu hau klase gatazkaren baitan ulertu beharra dago, langile klasea bere denbora librearen sistemaren injustiziak ezbaian jarriko ez dituzten ekintzetara bideratzen ditu eta. Bai lanpostuan, bai lanpostutik kanpo, esplotatuen antolaketa politikoa ekiditea kapitalismoaren helburu nagusietakoa da, eskura dituen hamaika baliabideetako bat aisialdi ereduaren delarik.




AISIALDI EREDU HONEN AURREAN ZER?

Lehenik eta behin, argi eta garbi esan beharra dago askatasun esparrua bizirauteko oinarritzko beharrak asetzeko eta lan-indarra birproduzitzeko lan iraupena amaitzen denean hasten dela. Gizarte kapitalista batean, oinarritzko beharrak asetzeko beharrezkoa den lan iraupenetik haratago egiten dugu lan langileok, hortik haratagoko lanaldian gainbalioaren bitartez esplotatzen gaituzte eta burgesek. Hortaz, soldatapeko lanetik ateratzean, denbora librea hasten da, lan-indarra birproduzitu eta norberak bere nahiak garatzeko esparrua, hain zuzen (muga materialak kontuan hartuz, noski). Gizarte komunista batean, inoren esplotaziorik jasan gabe bada ere, egunero bizirauteko nahitaezko lan iraupena dago berdin berdin, baina lanaldia ez da hortik haratago luzatzen. Ondorioz, kapitalismoan baino lanaldi askoz murriztagoa da, aisialdirako tartea hedatzen delarik.

Lan iraupenaren murrizketari begira, zientziak eta teknologiak lanetik askatzeko gaitasuna dutela ere nabarmentzekoa da, espezie bezala oinarritzko

beharrak asetzeko burutu beharreko lanaren iraupena murrizten baitituzte, aisialdiari eskaintzeko denbora handituz. Hori bai, betiere zientzia eta teknologiaren gaineko jabetza pribatuarekin amaitzen bada. Bestela, teknologiak eta tresnak logika kapitalistan garatzean, lanaldien iraupena berdin-berdin mantentzen dute burgesek, gero eta ekoizpen bolumen handiagoa makina gehiagorekin eta langile gutxiagorekin burutuz, eta langile klasearen sektore handi bat langabeziara kondenatuz.

Testuinguru honetan, Euskal Herri Langile gisa, antolaketa eta borrokaren esparruan, lanaldiaren murriztapenak ahalmen iraultzailea duen ezinbesteko aldarrikapena izaten jarraitzen du, bere ezarpenaren ondorio ekonomiko zuzena langileon esplotazio bolumena gutxitzea baita, denbora librea handitzearekin batera. Honek, bizirauteko behartutako ekintzak burutzen gauden denbora murrizten du, gure nahien askatasunera bideratutako denbora handituz, kualitatiboki oso ezberdinak diren iraupenak hain zuzen: bata behartua, bestea askea.



DROGEN IZAERAZ ETA FUNTZIO SOZIALAZ



Drogak gorputzean sartutako kanpo substantzia kimikoak dira, nerbio-sistema zentrolean eragina dutenak eta, ondorioz, pertsonon kontzientzia egoeran aldaketak sorrarazten dituztenak. Oro har, gaixotasun bat sendatzeko edo prebenitzeko ahalmena duten sendagai gisa ere definitzen dira. Azken finean, aisialdi-erabileradun egungo droga askoren ezagutza esparru klinikoaren baitan garatu eta hedatu da, hala nola, opioa, marihuana, LSD-a, MDMA-a, kokaina...

OHIKO ERAGINEN ARABERAKO SAILKAPENA

- **Droga depresoreak:** nerbio-sistema zentralaren aktibitatea mantsotzen duten drogak barnebiltzen dira bertan, haien eraginak hurrengoak direlarik: memoria moteltzea, odol presioa murriztea, logalea, analgesia, pulstu

kardiakoa moteltzea... Droga hauen kontsumoak heriotza izan dezake ondorio gisa.

- **Droga estimulagarriak:** ekintza fisiko zein neurologikoan hobekuntzak sorrarazten dituzten substantziak kokatzen dira estimulagarrien baitan: alerta handitzea, produktibitatea igotzea, odol presioa handitzea, pulstua azeleratzea, euforia, gosea gutxitzea, logalea murriztea, konbultsioak eragitea ... Droga hauen kontsumoak heriotza izan dezake ondorio gisa.

- **Droga haluzinogenoak:** pertsonon pertzepzioan, kontzientzian edota emozioetan eraginaksorrarazten dituzten drogak sailkatzen dira talde honetan. Bertan psikodelikoak, disoziatiboak eta deliranteak kokatzen dira. Psikodelikoek kognizioan eta pertzepzioan eragiten dute, LSD kasu. Disoziatiboek, kontziente dagoen garunak jasotako seinale batzuk blokeatzen dituzte eta garunaren beste esparru bateko seinaleak ahalbidetzen dituzte,

haluzinazioak edota trantzeak sorraraziz. Azkenik, deliranteek, ez dute kontzientzia egoerarik ahalbidetzen, aurrekoek hala nolakoa kontzientzia egoera ahalbidetzen duten bitartean.

OHIKO ERAGINEN ARABERAKO SAILKAPENA

Droga gorputzean sartzeko hautatuko bidearen arabera drogaren eragina aldatzen da, kontsumo bidearen arabera garunera iristeko behar duen denbora aldatzen da eta. Ohiko kontsumo bideak hurrengoak dira:

- **Bide oral:** biderik motelena.
- **Bide nasala:**
 - Inhalazioa (gasa, kea).
 - Esnifatzea (solidoa).
- **Zain barnekoa:** biderik azkarrena.

DROGEN KONTSUMOAREN BESTELAKO ERAGINAK GORPUTZEAN

- **Drogekiko menpekotasuna:** drogen kontsumo inputsi borako joera egoeran datza menpekotasuna, aldi berean, hauen kontsumoa uzteko ahalmen falta suposatzen duena.

- **Drogekiko tolerantzia:** droga baten kontsumo jarraituak eragindako egoera, zeinetan organismoa drogaren eraginera ohitzen den. Hori dela eta, kontsumoaren hastapenetan bezalako eraginak lortzen jarraitzeko, kontsumo dosiak handitzeko joera garatzen da.

- **Abstinentzia sindromea:** droga baten kontsumoa murriztu edo amaitzean pertsonaren baitan agertzen diren erreakzio fisikoen eta psikologikoen multzoa. Erreakzioen artean kokatzen dira, besteak beste, kontsumoa handitzeko edo berhartzeko gogoak, kontzentratzeko zailtasuna, buruko mina edota suminkortasuna.

- **Ajea:** toxikoen kontsumoei aurre egiteak esfortzu handia suposatzen dio gorputzari.

Ondorioz, ohikoa da drogaren zuzeneko eraginak igaro ostean, nekea, gaizki-egon orokortua edota buruko mina jasatea droga kontsumitzaileak. Ajearen agerpenari begira, alkoholaren kontsumoaren kasuan deshidratazioa kontuan hartzeko faktorea da.



DROGAK KLASA GATAZKAREN BAITAN

Substantzia kimiko gisa drogen ezaugarri eta eragin nagusiak aztertu ostean, zapaldu gisa hauek gizartean jokatzeko duten paperaz jabetzea dagokigu. Hau da, klase gatazkaren baitan drogek betetzen dituzten funtzioak eta eraginak antzematea, hain zuzen.

Ezagutzen eta bizi dugun gizartean, azken mende zein milurtekoetan klase gatazkaren garapena jazo da. Gizartean garapenean zehar ekoizpen baliabideen jabetza dela eta, klase zapaltzailea eta klase zapaldua bereizi daitezke, gaur egun guztiz baliagarria den analisia. Historian zehar klase zapaltzaileak zapalduen askatasun nahiak deuseztatu behar izan ditu, bere mesedetara lanera jarrai zezaten.

Helburu horrekin erabilitako tresnen artean kokatzen dira drogak. Substantzia hauek eragin zehatza dute gorputzarengan, baina klase zapaltzailearen aldetik nahita hedatu izan dira drogak potentzialtasun iraultzailea zuten klase, biztanleria sektore edota eragileen artean, klase gatazkaren baitan aldaketak egon ez zitezen.

Gaur egungo testuingurura etorri, langileak lanpostuan produktiboak izatea eta lanpostutik kanpo drogen kontsumoaren bitartez sistemarentzat mehatxagarriak ez diren ekintzak burutzera mugatzea da burgesiaren helburu nagusietako bat. Hau da, zapalduak zapaldu izaten jarrai dezatela, haien emantzipaziorako tresnak garatu gabe.

Lanpostuari begira, oso ohikoa da droga estimulagarrien kontsumoa, hala nola, kafeina kontsumitzea, "goizean kafe bat hartzen ez badut ez naiz pertsona" bezalako leloak guztiz normalizatuak daudelarik. Ideia eta kontsumo eredu honen atzean lanpostuan langileon papera guztiz egokia izar behar duenaren ideologia zapaltzailea kokatzen da.



Lanpostutik kanpo, laneko zein bizitzako agobioak (askotan diru kontuei lotuta daudenak), arazoak edota ezinegonak ahazteko jotzen dugu drogen kontsumora, guztiz normalizatu dagoelarik egungo Euskal Herrian edozein motatako drogak kontsumitzea, bai depresoreak, bertan alkohola izanik gehien kontsumitzen dena, bai estimulagarriak, sarri drogen kontsumo esparrua (juerga, parranda) ahalik eta gehien luzatzeko.

Klase gatazkaren logika ulertuta, drogen kontsumoaren hedapena eta sustapena klase zapalduaren desmobilizazioa garatzera dago bideratua. Metafora erabiliz, etsaiaren soldaduen artean alkohola banatuz gero, bai alkohola kontsumitzen duten bitartean, bai ajea jasaten

duten bitartean, ez dute borrokarako gaitasunik izango, denbora tarte guztiz preziatua etsaiarentzat bere proiektua zabaltzen eta indartzen jarraitzeko. Argi azpimarratu beharra dago gaur egun drogak burgesiaren kontrolerako eta menderakuntzarako tresna gisa balio dutela.

Azaldutako gatazka testuinguru honetan ezin ditugu ahaztu gaixotasun mentalen inguruan sistemak sustatzen dituen droga legalak, medikamentu gisa ezagunak. Normalitateak kanpo kokatutako jarreraren aurrean edota bestelako gaixotasunen aurrean (antsietatea, adibidez), haien jatorria eta testuingurua analizatu eta eraldatu ordez, gaixotasunen sintomak arintzera bideratutako drogak kontsumiarazten dituzte Euskal Herriko osasun sistemek, sarritan medikamentu hauek kontsumitzen dituzten pertsonengan ondorio bortitzak sorraraziz (substantzia kimikoarekiko menpekotasuna, sexu gogogabetasuna, amesgaizto iraunkorrak, gose falta...), gaixotasunaren jatorria den egoerak eta testuinguruak bere horretan dirauen bitartean.

DROGA AISIALDIRAKO BALIABIDE GISA

Atal propioa merezi du drogen eta aisialdiaren arteko harremanak. 2022ko Euskal Herrian ezinezkoa dirudi aisialdia ulertzea droga kontsumorik gabe. Lanetik ateratako potea, asteroko pintxopotea, txikiteoa, asteburuko parrandak, sagardotegi denboraldia, ezkontzak/despeditak, kontzertuak eta musika jaialdiak, ekitaldi kultural eta politikoetako droga salmenta, gaztetxeetako barrak...

Ikusten denez, nahiz eta drogen kontsumo eta eraginari arreta eskaintzea berebizikoa den, era berean, garrantzitsua da droga horiek kontsumitzea eragiten duen errealitate materialari ere erreparatzea: zerk bultzatzen gaituen drogak kontsumitzera, zer espazio eta denboran ematen den kontsumoa...

Aisialdiaren kasuan, berau lanetik aterata eta plazer zein ongizatea sentitzeko tarte gisa uler dezakegu, norbere buruarekin zein beste pertsonekin gustuko dituen egitekoak burutzen

harremanetan egoteko tartea. Hala ere, kapitalismoaren baitako zurrunbiloan kontzientzia asaldatzeko eta ihes egiteko erabili izan ohi dugu gure aisialdia, eta helburu honen baitan txertatzen da drogen kontsumoa. Egunerokotasuneko zama arindu, ahaztu, eta momentua soilik biziz igaro ditzakegu orduak eta orduak, arazoak alde batera utzita eta hauek landu, ulertu eta gainditu ordez burua jokoaz kanpo utziz.

Gainera, droga kontsumoan menpekotasuna eta jarraikortasuna garatzen hasten denean, kontsumoa partekatua izatea bilatu ohi da. Alde batetik, kontsumitzailea kontsumoa burutzen ez duten inguruko pertsonak horretara animatuz eta bultzatuz, eta bestetik, antzeko drogak edo droga berbera kontsumitu ohi dutenen artean batuz, antzeko aisialdia/parranda ereduak gauzatze bidean, normalizaziora joz.

DROGA JAZARPENERAKO TRESNA GISA

Klase gatazkaren azpi-atal garrantzitsua da atal hau, klase gatazkaren baitan subjektu iraultzaile gisa jarduten duten eragileek eta haien inguruko esparru sozialaren gaineko jazarpenaz mintzatzen dena, hain zuzen. Jazarpena gizartearen kontrola bermatzera bideratuta dagoen eta indarkeria oinarri duen funtzioa eta tresna da aldi berean, honen helburua botereari arrotzak zein arriskutsuak zaizkion antolaketa formak errotik moztea edo euren agerpena galaraztea delarik.

Jazarpenaren definizio horri jarraituz, zapaltzaileen esku dagoen beste tresna bat dira drogak. Ez drogak zuzenean salduz edo gure gorputzean bortxaz sartuz, bere salmenta eta kontsumoa baimenduz eta sustatuz baizik, bai legala, bai ilegal. Etsaiak zapalketen eta esplotazioaren aurka maila batean zein bestean antolatzen eta borrokatzen dutenak otzantzeko erabiltzen ditu drogak, bereziki antolatze gaitasun garbia duten sektoreetan drogen txertaketa eta hedapen prebentiboa eginez. Munduan zehar esperientzia iraultzaile ezberdinetan jasan dute droga ilegalen penetrazioa estatu zapaltzaileen eskutik (bai eragileetan, bai haien inguruan), problematika horri egunerokotasuneko droga legalen arazoak

gehituz (alkohola bereziki).

Jazarpenaren beste esparru bat droga ilegalen banatzaileen eskutik dator, bereziki kale mailako gameluen aldetik. Indar polizialek gameluen bezeroen informazioa eskura dezakete gameluak mehatxatuz edota haien arteko ika-miketan lagunduz, gameluak bezeroak mantentzearen tratu hurbila eta pertsonala sustatzen du eta haiekiko. Hau da, gameluak txakurren informatzaile eta kolaboratzaileak izatera igarotzen dira. Egoera honek segurtasun arazoa suposatzen dezake bezeroarentzat, bereziki zapaltzaileen aurkako mota bateko zein besteko jumitzea ingurukoekin askatasunez harremantzeko, eta alternatiba iraultzaile ororen garapenaren aurka kokatzen da drogen kontsumoa (desmobilizazioa, segurtasun arazoak...).



Azken finean, kontsumoa murrizten joateak norberaren gaineko kontrola handitzea suposatzen du, helburua langileon pentsatzeko eta ekiteko gaitasuna momentu oro garbi mantentzea delarik. Hortaz, drogen kontsumoari kritika garbizale bat egin ordez, drogekiko harremanari dagokionez egunerokotasunean sistema iraultzeko baldintzak sortzea izan behar da helburua.

Ezin dugu ahaztu, inolaz ere, langileok burututako drogen kontsumo orokortuak soldatapeko lanaren kateak eta estatu kapitalista jazartzaileen kateak betiketzen laguntzen duela. Hortaz, eredu honen inguruko hausnarketa eta kontsumo ohitura eraldaketa guztiz funtsezkoak dira alternatiba iraultzaileak garatze bidean. Ondorioz, ezinbestekoa da esparru politikoetan drogekiko dugun harremanaz hausnartzea.

FORMAKUNTZA



KLASE ERTAINA: ERREALITEA ALA MITOA?

Klase sozialez hitz egitean gizarte batean bereizketa bat burutzeaz ari gara. Klase sozialak existitzeak gizarteko sektore ezberdinen artean mailakatze bat (edo bereizketa bat) burutzea suposatzen du: ezaugarri batzuk direla eta X pertsona klase baten parte da, eta beste ezaugarri batzuk betez gero, Y pertsona beste klase sozial baten parte da.

Definizio hau abiapuntu izanik, gakoa klase baten ala beste baten parte izateko bete behar diren ezaugarrien definizioan datza, horrela, ezaugarri mota ezberdinak erabiltzen direlarik klase sozialen tipologiak burutzeko.

KLASE SOZIALAK EKOIZPEN HARREMANEN ARABERA

Gizarte batean, ongien eta bizitzarako baliabideen ekoizpena oinarritzko atala da, azken finean pertsona talde horren biziraupena eta garapena ekoizpenaren arabera delako. Horrela, merkantzia eta zerbitzuen ekoizpenerako, pertsonen eta ingurumenaren artean kokatzen diren baliabideak behar dira: tresnak, makinak, eraikuntzak... Analisi marxistaren aburuz, ekoizpenean erabiltzen diren baliabide hauen jabetzaren arabera zehazten da klase soziala: alde batetik, ekoizpen baliabideen jabetza edo/eta

kontrola duten pertsonen klasea, eta bestetik ekoizpen baliabideen jabetza ez dutenen klasea.

Ikuspegi honen arabera, historian zehar bi klase nagusi hauen arteko harreman ezberdinak egon dira (esklabotza eta feudalismoa, esaterako), gaur egungo munduko gizarte gehiengoan, ekoizpen baliabideen jabeak burgesak direlarik eta jabetzarik ez dutenak langileak direlarik. Langileok burgesentzat egiten dugu lan, haien fabriketan, bulegoetan, haien ibilgailuetan, telematikoki haien jabetza den softwarea erabiliz...

Ekoizpen baliabideen jabetzak

bere baitan daramatzan klase interes kontrajarriek klase gatazka sorrarazten du. Kapitalismoaren kasuan, langileek burgesentzat lan egiten dute, eta ekoiztutako merkantzia edo zerbitzua burgesen jabetza izanik, burgesek soldatan ez diete langileei ekoiztutako denbora osoa ordaintzen. Langileen interesa ekoizpen baliabideen sozializazioa lortzea da, burgesen esplotazioarekin amaitzeko, eta alderantziz, burgesen interesa ekoizpen baliabideen jabetza pribatuarekin jarraitzea da, langileen esplotazioaren bitartez gainbalioa xurgatzen eta kapitala metatzen jarraitzeko. Interes guztiz kontrajarriak, alegia.

KLASE SOZIALAK EKOIZPEN HARREMANEN ARABERA

Gizartearen analisi marxistaz gain, historian zehar beste analisiak burutu dira beste motatako ezaugarrietan oinarrituz. Soziologia eta antropologia bezalako ikerketa arloak garatzen joan diren heinean, planteamendu ugari gauzatu dira gizarte ikerketan. Jakintzaren esparru hauetan oinarrituta, gizarte eta garai zehatzetan ekoizpenarekiko harremanaz gain, beste faktore batzuek gizarteko azpitaldeen bizitza eredu baldintzatzen dute. Bertan kokatzen dira erlijioa, arraza, izaera nazionala, etnia edo generoa, besteak beste.

Abiapuntu hori izanda, gizartean status mailak zehaztuta burutu izan dira gizarte bateko klase sozialen analisia, hau da, "klase sozialak" ekoizpen harremanetatik at ulertuta. Horrela, gizarteetan arrazaren araberrako mailakatzeak edo estratifikazioak, edota familien kontsumo ereduaren eta erreputazioaren araberrako sailkapenak ere burutzen dira.

"KLASE ERTAINA" KONTZEPTUAREN JATORRIA

Klase ertaina kontzeptuaren garapena soziologiaren arloan eman zen, gizartearen ikerketara bideratutako zientziaren esparruan hain zuzen. "Klase ertaina" kontzeptuaren erabiltzaileen esanetan, gizartean klase baxua, ertaina eta altua daude. Korrante honetan klaseen arteko bereizketa burutzeko sarri aberastasuna, boterea eta prestigioa aldagaietan oinarritutako sailkapena burutzen da.

"Klase ertaina"-ren definizioen artean honakoa ere topatu dezakegu: "gizartearen frakzio kopurutsuena da klase ertaina, balore determinatu batzuk partekatzen dituen, egonkortasun finantziario duena eta bizi kalitate ona duena, bere oinordekoei pasatzea espero duena". Bertan etxebizitza, aisialdia, osasun arreta, hezkuntza maila, jubilazio duina, ezohiko gastuei aurre egiteko gaitasuna... bezalako aldagaiak aipatzen dira.

Azken finean, "klase ertaina" aipatzen dutenek klaseak kontsumo (gastu) patroien arabera eta jabetzan duten diru kantitatearen arabera sailkatzen dituzte. Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak (ELGA, ingelesez OECD), horrela definitzen du klase ertaina: "urte eta erregio zehatz batean, bertako batz besteko errentaren % 75 eta % 200en artean kokatzen diren familiek osatzen dute klase ertaina". Hau da, Euskal Herriko batz besteko errenta 2022. urtean 25.000 €-tan kokatuko balitz, 18.750€ eta 50.000€ arteko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak osatuko lukete Euskal Herriko klase ertaina, ELGA-ren definizioa erabiliz.

"KLASE ERTAINA" KLASE GATAZKAREN UKAZIO GISA

Klase ertainaren inguruan, lehendabiziko gauza deigarriena bere definizioan dagoen zehaztapen eta kontsentsu falta da. Korrante, ikuspegi edo antolakunde bakoitzak bere definizio propioa egiteko gaitasuna du "klase ertaina" aztertzeke orduan, eta honek analisi garaian zailtasunak besterik ez ditu sortzen.

"Klase ertaina" kontzeptuaren izaerarekin jarraituz, bere erabilerak gizarte zientzietan eta masa hedabideetan klase zapaltzailearen interesekin bat egiten du. Lehenik, "klase ertaina" kontzeptua aitzakia gisa erabilia, gizarte klaseen analisia

ekoizpen harremanetatik aldendu eta pertsonon diru kantitatean oinarritzen da, diru kantitatearen arabera klase batean ala bestean egonik. Horrela, ekoizpen harremanetan sortzen diren esplotazioa eta etsaitasuna analisitik era makurrean desagerrarazten dituzte "klase ertaina" kontzeptuaren erabiltzaileek.

Honek, azken finean, klase gatazkaren ukapena dakar, klaseak zehazteko orduan klase baten eta bestearen artean konfrontaziorik ez dagoelako: haien hitzetan klase altuak diru gehiago du, baina bere merituagatik da, eta era berean, klase baxuak diru gutxiago du, baina aurrezten ez duelako edo formakuntza falta duelako. Gizartean ez dago esplotatzailerik analisi faltsu hau erabiliz gero.

Noski, bizi baldintza hobeak dituzten langileak zein bizi baldintza okerragoak dituzten burgesak existitzen dira gaur egungo Euskal Herri zapaldu eta kapitalistan. Lehenengoek burutzen duten papera edo funtzioa esplotazioan garrantzitsua denez, klase zapaltzaileak soldata handiagoak izatea bermatzen die, langileei erauzitako gainbaliotik ordainduak direnak, oro har. Bertan kokatzen da, adibidez, enpresa bateko jabetza ez duen zuzendari edo gerente bat, hau da, kapitalistak ezarritako egunerokotasunerako enpresaren kudeatzailea. Baldintza okerragoak dituzten burgesen egoera, aldiz, burgesen

arteko lehiaren baitan desabantaila posizio batean edo zuzenean porrot egoeran egoteagatik izan ditzakete bizi baldintza kaskarrak, adibidez: ordu asko eskainiz haien enpresa edo negozioazioaren kudeaketara, besteak beste, bezero sareak lortzeko, lehengaiak merkeago topatzeko...



"Gizarte batean, ongien eta bizitzarako baliabideen ekoizpena oinarritzko atala da, azken finean pertsona talde horren biziraupena eta garapena ekoizpenaren arabera delako. "

Langile zein burgesen diru sarrera eta bizi baldintzen ezaugarriak dibertsoak izateko aukerak ez du esan nahi klase sozial baten baitan elkartu daitezkeenik soldata handiko langileak eta burgesak. Klase bakoitzak gizartearen ekoizpen moduan posizio zehatz bat betetzen du, eta klase gatazkaren garapenaren arabera klase bakoitzaren baitan ezberdintasunak sortzen doaz: soldatapeko langile batzuk kapitalarentzako funtzio garrantzitsuak betetzean bizi baldintza hobeak jasoz, eta burges batzuk besteekin ezin lehiatzean, haien bizi baldintzak okertuz eta sarri soldatapeko langile bilakatuz.

Hortaz, "klase ertaina" existitzen

dela ondorioztatu daiteke, jainkoaren ideia existitzen den bezala: erlijio bakoitzarentzat jainkoak izen bat du eta izaera bat du, baina ez da materialki existitzen. "Klase ertaina"-ren definizioa bera planteatzerako orduan agertzen den koherentzia falta dela eta, errefusatu egin behar dugu honen erabilera.

"Klase ertaina" kontzeptua ideologia zapaltzailearen parte dela ondorio argia da, gizarteak bizirauteko behar dituen ongien ekoizpenean dauden kontraesanak ezkutatzeko eta. Klase gatazka desagerrarazten du analisisan, nahiz eta klase gatazka egon badagoen. Honen aurrean, ekoizpen harremanen arabera klase sozialak azaleratzea dagokigu iraultzaileoi, bai historiaren garapena era egokian ulertzeko, bai zapalketak gaintitze aldera alternatiba iraultzailea eratzeko oinarri gisa: klase gatazkan zapaldu gisa antolatze eta borrokatze.



" berebiziko problematika honen aurrean, etxebizitzaren sozializazioa alboratu ezin daitekeen helburua da "



LANGILEON ETXEBIZITZA PROBLEMATIKA KRONIKOA?

Azken urteotan Espainiako gobernu sozialdemokratak Ongizate Estatua erabili du; historian zehar egin duen bezala, kapitalismoak dauzkan egiturazko arazoei aurre egiten saiatzeko. Honen adibide da urte hasieran onetsi den Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata igoera edo duela hilabete gutxi gauzatu zen Lan-erreformaren erreforma. Hauetaz gain, badago egiturazkoa den arazoa, etxebizitza problematika, alegia, produkzio eredu kapitalista birproduzitzeko berezko beharra baitu.


ERREFORMA PARTZIALAK

Azken urteotan etxebizitza arazoei aurre egiteko proposamenak aurrera atera dira espainiar estatuan, printzipioz, kapitalismoak berak gehien kolpatzen dituen estratu sozialei baliabide berriak eskaintzeko asmoz. 2022-2025 Etxebizitza Eskuratzeko Estatuko Plana, Alokairurako Gazte Bonua eta Arkitektura Legea onartzea logika honen ondorio hurbilenak dira.

Lehenengoa, alokairua ez ordaintzeari aurre egiten dieten aseguroaren kontratazioa diru-laguntza publikoez babestean datza, kuotak urteko soldata nominalaren % 5eko muga izanik; hau da, bere urteko lanaren truke langileak jasotzen duen diru kantitatearen % 5. Langileontzako modu iraungarrian, gobernuak berak "maizterrei sortutako zailtasun ekonomikoko edozein egoera aldi baterako arindu dezaten" gauzatu dute programa hau, etxebizitza problematika aldi bateko arazo bat izango balitz

bezala.

Bigarren proposamena, Alokairurako Gazte Bona, hain zuzen, funtsean antzeko proposamena da. 35 urtera arte, gehienez 600€-ko alokairua duten etheen gainean aplikatu daiteke. Horretaz gain, eskalearen soldata nominalak ezin du Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren hirukoitza gaintitu, hots, hilabeteen 579,02€-ren hirukoitza. Bona hilabeteen 250€-ko diru-laguntza da. Aurrekontuetatik diru-laguntza honi eskaini zaion kantitatearekin emantzipatu direnen % 1,7ri eragiten dio, eta garrantzitsua da azpimarratzea bonoak ez dituela kontuan hartzen jabeek gauzatu ditzaketen alokairuen igoerak.



Azkenik, Arkitektura Legea, trantsizio ekologikoarekin eta energetikoarekin jarraitzeko eta etxebizitza guztiek kalitate berme bat izateko txertatu den legea da. Honekin batera, espazio publikoen hedapena sustatuko da, eta klase gizarteak suposatzen dituen bizi baldintza desberdintasunak lausotzeko eraikin publiko zein etxebizitzak energetikoki jasangarriagoak eta kalitate aldetik hobekuntza bideratuko dira. Kalitate irizpide zorrotzago bat izango dute eta

eraikin berrien hobekuntza edo behin eginda dauden aldaketak hasiera batean publikoki finantzatuko dira. Etorkizuneko gobernu aldaketa batek, lege hau zein gainontzekoak ezbaian jartzeaz gain, lege honek ez du etxebizitzaren eskubidea gizaki guztientzat unibertsalizatzen, baizik eta behin etxebizitza izanda oraindik oso zehatza ez den bizi-baldintza hobe baterako berme bat aplikatzen.

ALOKAIRUA, ETXEGABETZEAK ETA TURISTIFIKAZIOA

Azken inflazioa kontuan hartu gabe, urteko lehenengo hilabeteetako egoera ongi islatzen duten erosketa eta alokairuen inguruan kontsultatutako datuen arabera, azken urtean (2022ko urtarrila), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian etxebizitzaren prezioa batz besterik % 1,1 igo da, lehenengo hiru herrialdeetan alokairua % 1,1 jaitsiz (beheranzko joera bakarra) eta Nafarroa Garaian % 3,4 igoz. Honetaz gain, hipoteken kantitatea neurgailu hona da banketxeekiko dependentzia baloratzeko. Perspektiba hartuz, 2014tik 2021era Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan % 164,7 igo dira eta Nafarroa Garaian % 157,7. 2008ko etxebizitza burbuilaren mailara iritsi gabe, kezkarriak diren datuak dira hauek, menpekotasun handia suposatzen dutelako kapitalismoak daukan krisietan ikus daitekeen bezala. Osotara herrialde hauetan hipotekek 322,52 milioi euroko irabaziak

sortzen dituzte. Inflazio hau ez da soldaten igoerarekin bat etorri, ondorioz langileon eros-ahalmena murrizten da, gure bizi-baldintzak okerrera joanez. Aldiz, banku eta eraikuntza inguruko sektoreek joera positiboa izan dute azken urteotan klaseen arteko tarteak gehiago zabalduz.

Etxegabetzei dagokienez, instituzioek aitortzen dituzten datu ofizialen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian 2020an 871 etxegabetze erregistratu ziren, eta 2021eko lehenengo bederatzi hilabeteetan 240. Hala ere, etxegabetze fenomenoak ezin dugu bankuen gururiaz epaileek eta berreroek gauzatutako kaleratzeetara mugatu. Hain zuzen ere, gaur egun oso ohikoa da etxebizitzaren jabetza inbertsio funtsen esku geratzean, hauek alokairuaren prezioa asko igotzea, bertako maizterrek kaleratzea behartuz.

Euskal Herriko Iparraldean ere ikaragarria da etxebizitzaren egoera, are turistifikatuagoa gainera. 2021ean Zuberoa, Nafarroa Behera eta Lapurdin dauden etxebizitzaren % 30 alokairu turistiko edo bigarren etxebizitza izatera bideratua daude. Horretaz gain, etxebizitzaren erosketa prezioa ez da alternatiba bat prezio altuen ondorioz, turistifikazioan oinarria dutena, hain zuzen.

Etxebizitza merkatu desregulatuak, hau da, sektorearen gestio pribatuak estatuaren esku-hartze

gabeziaren aurrean, gainontzeko ekonomia jarduerak baldintzatzen ditu. Alde batetik, jardun ekonomia turistifikazioari bideratuz, epe motzeko alokairu garestiak sortzen dira, eta horrekin batera, enplegu labur eta latzak. Bestetik, turistak erakartzeko asmoarekin, landa eremuko lur emankorren gainean urbanizatzea jasaten du Iparraldeak, bertako nekazaritza kaltetuz eta tokian-tokiko biztanleria alde egitera behartuz.

ETXEBIZITZA, LANGILEON OZTOPO

Argi dago, gaur egun oraindik, inmobiliaria, jabe handi, banketxe eta eraikuntza enpresentzat mozkin handiak sortzen dituen sektorea dela hau, bide batez langileak miseriara kondenatzen dituen.

Etxebizitzaren egoera ikusita, argindarra eta gasaren prezio altuekin batera (inoiz baino garestiago daudenak), onartutako erreformek eta langileon soldata nominalaren igoerak etxebizitza arazoa ez dutela konponduko baieztatzen da. Aitzitik, erreforma hauek etxebizitza arazoa betikotzeko saiakera bat dira sozialdemokraziaren partetik, langileon etxebizitzarekiko menpekotasuna indartuz. Azken finean, langile klasearen egoera ez da aldatuko erreforma legal hauekin. Are gehiago, okerrera joango da behar-berezko elementuen garestitzearen ondorioz.



"Inflazio hau ez da soldaten igoerarekin bat etorri, ondorioz langileon eros-ahalmena murrizten da, gure bizi-baldintzak okerrera joanez."

ALTERNATIBA BAKARRA, JABETZAREN SOZIALIZAZIOA

Kapitalismoarentzat etxebizitza problematika funtsezkoa da. Langileek nominaren ehuneko handi bat bizitzaren kostuak ordaintzera (janaria, ura, argia edo etxea bezalako beharrak asetu) eta lanaren birprodukzioa bermatzera bideratzen dute eta, soldatapeko lanarekiko menpekotasun egoera betikotuz horrela, lanaren bidez irabazitakoak hurrengo egunean lanera joateko erabiltzen dira. Ekonomia nahiz denbora aldetik gero eta tarte gutxiago dago aisialdirako; alegia, lana eta honen birprodukzioa bermatzeko denboratik at

gelditzen diren momentu horietarako. Etxebizitza bezala berebiziko garrantzia duten eskubideen izaera pribatua da honen arrazoia, eskubide honekin espekulatzeak dakarrelako, adibidez, turismoari bideratutako lurzoru emankorren erosketa edo lan-indarra gero eta merkeago saltzea; bizitza gero eta gehiago garestitu ahala, zure lan-indarraren truke ematen zaizun soldata mantentzen bada, zure lan-indarra merkeago saltzen duzu.

Aipatutakoak adibide batzuk dira, baina egiturazko arazo honi errotik aurre egiteko ez dago erdibiderik, ez dago neurri keynesiano eraginkorrik. Izan ere, hauek kapitalismoari bere mozkin eta menderatze esparru klabe bat kenduko liokete eta izaera mugatua izango lukete, eredu ekonomikoa errotik aldatzen ez bada, hurrengo legealdian neurria atzera bota daitekeelako. Hortaz, langile klasearen askatasunaren bidean eta berebiziko problematika honen aurrean, etxebizitzaren sozializazioa alboratu ezin daitekeen helburua da.



ELKARRIZKETA



Batu Elkarlaguntza Sarea orain dela pare bat urte Hego Uriben sortutako eragilea da, helburu nagusi batekin: elkarlaguntza oinarrizko printzipio moduan hartuta, eskualdeko auzokideak euren bizi-baldintzen alde antolatzea eta borrokatzea. Horretarako, bi lan ildo nagusi jorratzen dituzte: elikadura arazoa, Subete Elkartasun Biltegiaren bidez, eta etxebizitza arazoa, Etxebizitza Sindikatuaren bidez. Haiekin egon gara, eta haien borroken nondik norakoen eta bi urtetan bereganatutako esperientzien berri eman digute.

1. Zein testuingurutan sortu zen Batu? Noiz, non eta zergatik?

Batu Elkarlaguntza Sarea 2020ko ekainean sortu zen, hain justu itxialdiko deseskalada fasean murgilduta geundela. Hala ere, atzerago joan behar dugu sarea osatzeko arrazoiak ulertzeko. Izan ere, aurreko hamarkadako krisiaz geroztik, alokairu prezioek itzelezko igoera izan zuten, funts putreen operazio espekulatiboak eraginda. Ideia bat izateko, 2015etik pandemiak eztanda egin arte, alokairuak % 30 igo ziren Hego Euskal Herrian, eta maizterron soldataren erdia suposatzen zuten, soldataren %

70 gazteen kasuan. Horrek zera adierazten zigun: etxebizitza izango zen klase borrokarako esparru nagusietako bat hurrengo urteetan.

Bestalde, 2008ko krisiak etxebizitza edota auzo sindikatuen loraldia eragin zuen Katalunian. Ekimen horiek interes handia piztu zuten hemengo jendearen artean, arrazoi nagusi batengatik: sektore sozial proletarizatuenak antolatzeke eta aktibatzeke erakusten zuten gaitasunagatik. Hori zela eta, etxebizitza sare edo sindikatu batzuk sortzen hasi ziren, Galdakaoko Etxebizitza Sarea kasu, baina



oihartzun handirik gabe oraindik.

Kide batzuk urte batzuk generamatzen Hego Uriben antolatzen, batez ere, gazte esparruan, herriz herriko borroka hauek eskualde mailan koordinatuz eta zenbait ekimen aurrera eramanez, Urriko Martxa, Maiatza Gorria eta brigada politikoak, besteak beste. Pandemiak eztanda eginda, alarmak piztu zitzaizkigun eskualde mailan elkarlanean genbiltzan kideoi: krisi ekonomiko baten atarian ikusten ginen, eta zetorrenari aurre egiteko antolatu beharra zegoen. Hori zela eta, zenbait bilera online egin eta gero, itxialdiaren deseskalada baliatu genuen geure burua argitara emateko. Hainbat tokitan antzeko hausnarketa egin zen. Hortaz, ez da kasualitatea AZET, Bilboko Maizterrak, Alogerekoak eta abarrak ia momentu berean eratu izana.

Esparru geografikoari dagokionez, Hego Uribeko zenbait herritan egiten dugu lan, hau da: Basaurin, San Miguelen, Arrigorriagan, Ugaon, Zeberion, Arrankudiagan eta Zaratamon (egia da herri txikietan oso presentzia eskasa dugula, etxebizitzaren problematika ez baita hain agerikoa). Alde batetik, eskualde mailan antolatzea erabaki genuen, errealitate lokalekiko hurbiltasun handiagoa izateko, martxan jarri nahi genuen borroka-ereduak tokian tokiko errealitatean errotua egotea suposatzen duelako. Beste aldetik, herriz herri antolatu izan bagina,

desoreka handiak sortuko ziratekeen herrien artean, modu eraginkorrean borrokatzeko gaitasunei begira. Eraginkortasunak beharrezko egiten du maila orokorrago batean (gure kasuan, eskualdean) indarrak batzea.

2. Zeintzuk dira jorratzen dituzuen lan-ildo nagusiak?

Bi lan-ildo nagusi jorratzen ditugu: etxebizitza eta elikadura. Izan ere, biak jotzen ditugu oinarri-oinarrizkotzat "bizitza duin" bat izateko, baina, kasu gehiegitan, ez dira bermatuak izaten, etxebizitzaren kasuan modu nabarmenean. Hori dela eta, bi lan-ildo horiek ezarri genituen abiapuntu gisa. Beste lan-ildo batzuk ere jarri ziren mahai gainean, lan arloa kasu, baina ur handiegitan sartzea zen eta sarearen eraginkortasuna kaltetu zezakeen. Horregatik, aipatu lan-ildoetan zentratzea erabaki genuen.

Halaber, etxebizitza eta elikadura bizitzeko ezinbestekoak izateaz gain, borroka prozesuan nahiko osagarriak suertatzen dira. Sarritan, etxebizitzarekin arazoak dituenak janaria eskuratzeko zailtasunak ere izaten ditu. Etxebizitza arazoak konpontzea zailagoa izaten da, eta prozesu luzea eskatzen du. Elikadura arazoari, aldiz, erantzun azkarragoa eman ahal zaio, eta beraz, eguneroko gastuei aurre egin ezin dieten pertsonen larritasun egoera arindu, etxebizitzarena lantzen den bitartean. Beraz, bi esparru hauek bateragarriak izateaz

gain, gure proiektuari osotasun handiagoa ematen diote, bizi-baldintzen esparru zabalagoa jorratzeko aukera emanez.

Bestalde, bi lan-ildo horietan zentratu arren, bestelako problematikekin egin ohi dugu topo, adibidez: etorkinen erroldarekin, instituzioen diru-laguntzekin, soldata lortzeko ezintasunarekin, arrazakeriarekin, sexu-genero arteko biolentziarekin... Horiek zeharka landu izan ditugu, azken finean, denak lotuta egoten direlako, eta klase gatazkaren azaleratze formak direlako guztiak. Sarritan diogun bezala, etxebizitza edo elikadura arazoak ez datoz bakarrik, beti daude beste hainbat biolentzia formengatik zeharkatuak eta, beraz, espresuki aldarrikatzen ez ditugun lan-ildoak ez izan arren, feminismoaren, antirrazismoaren eta askapenerako beste hainbat borroka ere barnebiltzen ditugu gure egunerokoan.

3. Zein da zuen antolaketa ereduaren ildo horiek jorratze aldera?

Sarea bi egitura handitan banatzen da: batetik, Etxebizitza Sindikatua, eta bestetik, Subete Elkartasun Biltegia; bien arteko autonomia nahiko zabala delarik. Etxebizitza Sindikatuaren asanbladak astero batzen dira. Bertan, pertsona kaltetuek dituzten arazoak azaltzen dituzte, eta kide guztien artean konponbideak bilatzen dira, kasuan-kasuko estrategiak eta borrokak diseinatuz. Asanbladetan, kasu bakoitzaren

jarraipena egingo duen komisiao ere izendatzen da, zeinak kide kaltetuaren egoera hobetze aldera eman beharreko pausoak proposatzen dituen.

Subete Elkartasun Biltegian hilabetero egiten ditugu asanbladak, eta honako gaiak jorratzen dira: janari bilketak, janari-poltsen banaketa, biltegiaren kudeaketa... Janari-poltsak bi asterik behin banatzen dira, eta 40 kide inguruk jasotzen dute.

Gero, komunikazio eta finantzazio lantaldeak daude, eta lantalde motorra, sarearen jarraipena egunerokotasunean egiten duena. Azkenik, 3-4 hilean behin koordinazio asanbladak daude, eta urtean behin asanblada orokorrak, erabaki estrategikoagoak hartzeko, ikasturte politikoaren hasieran gauzatu ohi dugu. Hasiera batean, erabaki estrategikoak asteroko asanbladetan eztabaidatzen genituen, baina eztabaidak gehiegi luzatzen ziren eta markoak bere funtzioa galtzen zuen (kaltetuen arazoen jarraipena egitea, alegia). Hortaz, lantalde motorrari egokitzen zaizkio erabakiok, betiere kolektiboan lantzeko mekanismoak mahaigaineratuz eta erabaki ahalmen demokratikoak bultzatuz.

Antolaketaren oinarritzko printzipioa elkarlaguntzaren ideia izango litzateke. Izan ere, kaltetu batek Batura jotzen duenean, argi uzten zaio ez zaiola soluzio magikorik

eskainiko eta sarean inplikatu behar dela, besteak ere lagunduz, lagundua izatea gura badu. Ez dugu inondik inora asistentzialismoan erori nahi. Horrenbestez, pertsona indibidualen arazoak era kolektiboan konpontzen ahalegintzen gara, hau da, denon artean eta horrela, kaltetu-laguntzaile dikotomiarekin apurtzen saiatzen gara. Lan egiteko perspektiba hau egunerokoan txertatzen saiatzen gara eta datorren kide berri orori transmititzen diogu elkarlaguntzaren garrantzia, teorikoki kontzeptu garrantzitsua dela jakiteaz gain, praktikara eramanez, langile klasearen ahalduntzerako zein askapenerako tresna hau jartzen baitugu gure borrokaren erroan.

4. Elkarlaguntza antolaketa ereduaren oinarritzko printzipioa izanik, zer egiten duzue hori praktikara eramateko?

Egia esanda, elkarlaguntza diskurtsiboki oso polit geratzen den gaia da hau, baina praktikara eramatea zailagoa suertatzen zaigu askotan; alde batetik, ezberdintasun kultural nabarmenak daudelako kideen artean; beste aldetik, modernitate kapitalistak bultzatzen duen indibidualismoa dela-eta, zaila delako arazo larri bat duen pertsona bat besteengatik borrokatzea bultzatzea, ohikoa izaten den moduan. Labur esanda, kaltetu moduan batzen zaizkigun kideek lagunduak izateko asmoa izaten dute hasiera-hasieratik

gehienetan; gainontzeko kaltetuek bizi dituzten zailtasunak borrokatzeko hautua nekez hartuz, eta bestalde, militante profileko kideek ere ardura gehienak beregain hartzeko joera erakutsi ohi dute, kide kaltetuen politizazio prozesua zangalatrabatuz horrela.

Argi uzten saiatzen garena zera da: lagundua izan nahi duenak sarean inplikatu beharra duela. Horretarako, gutxieneko neurria Sindikatuko edo Elkartasun Biltegiko asanbladetan eta dinamiketan (pegadak, bilketak, mobilizazioak, etab.) parte hartzea izaten da. Etxebizitza Sindikatuko asteroko asanbladetan agertzen ez diren kasuen arazoak ez dira jorratzen, soilik presente daudenak. Elkartasun Biltegian berdin, parte hartzen ez duenak ez du poltsarik jasoko. Gero, kasu asko daude haien arazoak besteok konpontzea espero dutenak, eta beraien arazoaren konponbidean ere ez direnak inplikatzeko, baina horiek ibilbide laburra izaten dute...

Praktikan, zaila izaten da sarearen egunerokoan parte-hartze orekatua bermatzea. Askotan "militante" moduan sartu direnek (hau da, etxebizitza edo elikadurarekin arazo berezirik ez dutenen) ardura nagusiak hartzea. Kasu askotan, errazagoa izaten da gauzak antzeko balio, lengoia, ohiturak baita ibilbide militanteak dituen jendearekin aurrera eramatea, beste pentsamolde bat duen

norbaitekin pedagogia egitea baino. Diskurtsiboki zein praktikoki "elkarlaguntzan" oinarritu nahi da, baina gero, eraginkortasunaren izenean, ekimen asko "jarraibide militanteak" barneratuta dituztenen artean eramaten dira, asistentzialismoan eroriz.

Arazo horren gakoetako bat eremu politizatueta erabiltzen den terminologian oinarritzen da. Kaltetu batek ulertzen ez dituen terminoak erabili edota heldutasun politiko bat barnean daramaten hausnarketak egiten dira. Ondorioz, kaltetuak maiz "ez direla enteratzen" ematen du, eta ohiko praktiketatik haratago doazen erabakiak hartzeko, zein ekintzak gauzatzerako orduan, ez dira kontuan hartzen. Horretarako, egin beharreko lehenengo gauza da lengoia sinple eta pedagogiko bat erabiltzea, eta garrantzi handiagoa eman egiten denari, esaten denari baino. Gainera, beti dago modu bat kontzeptu konplikatuak edo teknikoak modu sinple eta pedagogikoan adierazteko; eta berdin dute erabiltzen diren hitzak, praktikan egingo duguna berdina izango bada. Era berean, delegazioan ere sakondu beharra dago, militanteen artean ardurak banatzetik, kide guztien artean banatzera, hain zuzen.

Funtsean, bilatzen duguna zera da: "militante" eta "kaltetu" figuren banaketarekin apurtzea, eta "kaltetu" moduan datozenak "militante" bihurtzea. Kasu batzuetan, lortu da, beste hainbestetan huts egin da.

5. Zein profiletako jendeak jotzen du zuengana? Badago bereziki zaurgarria den kaltetu profilik?

Hainbat profiletako jendeak jotzen du gugana. Esan beharra dago proportzio oso handi batean etorkinak izaten direla, horietako asko Magreb ingurutik etorriak. Horien artean, denetarik dago: bakarrik etorritako mutil gazteak, familia osoak, umearekin bakarrik datozen amak... Askotan ia ez dute gaztelania ulertzen, eta oso zaila izaten da haiekin komunikatzea (zeresanik ez militanteen arteko eztabaidak pizten direnean). Gero, distantzia kulturalak elkar ez-ulertze asko eragiten ditu.

Deigarria suertatu daiteke hemen jaiotako oso jende gutxi etorri dela Batura, eta etorri direnean, aurretik senarraren partetik tratatu txarrak jasan dituzten emakumeak izan direla.

Ez lirateke arazoak hierarkizatu beharko, baina egia da umeekin datozen familia zein emakume ezkongabeen kasuak arreta eta lehentasun handiagoz lantzen direla. Arrazoiak argiak dira: inork ez du kalean bizi behar, are gutxiago, ume batek. Bestalde, familiak bi gurasoz osatuta daudenean, posible dute bata lanean (beltzean bada ere) dagoen bitartean bestea umeak zaintzen egotea. Baina umeak pertsona heldu bakarraren ardurapean daudenean, lan egitea askoz konplikatuagoa da, eta diru-laguntzarik ezean, miseriara kondenatuak daude. Horretaz gain, emakumeek

muturreko biolentzia jasateko arrisku handiagoa dute kale gorrian geratzekotan eta horrexegatik, lanketa berezia eskatzen dute arrisku honekin bizi diren kide emakumeek.

6. Zeintzuk uste duzue direla egungo desmobilizazio egoeran antolatu beharreko gizarte kolektiboak?

Argi dago: langile klase osoa antolatu beharko litzateke. Hala ere, uste dugu Euskal Herrian azken hamarkadetan langile klasearen estratu akomodatueta familien seme-alabak antolatu izan garela, batez ere. Hau da, familiaren gutxieneko sostengua, batez ere, ekonomikoa, jaso ahal izan dugunok, eta, neurri batean, goimailako ikasketak egin ahal izan ditugunok. Salbuespen asko egon daitezke, baina hori horrela izan da neurri oso handi batean. Euskal Herriko esparru ezberdinetako militanteen artean zenbat irakasle dauden begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Ekimen militantea askotan helburu ideologikoak lortzeko grinak sustatua izan da ("independentzia", "sozialismoa", "komunismoa"...), baina kasu askotan, eguneroko praktika politikoa jendearen eguneroko beharrian materialetatik urrun garatu dela. Helburu ideologikoei eustea ezinbestekoa da, bai, baina beharrezkoa da gizartearen eguneroko arazo materialetan egotea ere, edo beste modu batera esanda, gure konfort

eremuetatik irtetea eta "lokatzetan sartzea".

Horixe da etxebizitza sindikalismoak ahalbidetzen duena: "militanteak" benetako arazo material sakonak dituzten gizarte sektoreekin nahastea eta beroriek antolatzea. Nolabait esateko, balizko iraultza baten premia handiena duten sektoreak aktibatzea eta hauen antolakuntzarako bideak eraikitzea. Horrek ez du esan nahi militanteek ez dutenik arazo materialik. Badituzte, baina agian irakasle lanpostua lortzen dutenean ez zaie hain ezinbesteko iruditzen gizartea aldatzeko borrokatzea... Klase kontzientzia eta, beraz, borrokarako grina galdu egiten da ongizatearen ilusio faltsu horretan.

Egia da distantzia kulturalak zaildu egiten duela sektore sozial horiek subjektu moduan antolatzea, baina gure ustez, aurrera eraman beharreko prozesua da ezinbestean.

Era berean, desmobilizaziorako joera orokortua ukaezina da. Modernitate kapitalistak globalizazioa ez du soilik arlo ekonomikoan ekarri, eremu kulturalen ere eragin itzela izan du eta bere helburua klase arteko gudaren adierak ezabatzea izanik, klase kontzientzia erabat gainbeheran dago gaur egun. Kontzientzia ez honek, borrokarako grinak deuseztatzen ditu, individualismoan eta subjektibitate liberalean murgiltzeko aukerak biderkatuz, eta beraz, iraultzarako

ezinbestekoa den masa mugimenduaren artikulazioa guztiz zailtzen du. Zentzu horretan, langile klasearen sektore kolpatuenekin lan egiteak, sistemaren kontraesanak modu agerikoagoan ikustea ahalbidetzen du, kontzientziazio, politizazio eta ahaldunderako bidea erraztuz langileriaren artean.

7. Baturen bilakaeran, zein garrantzi eman diozue ideologizazio prozesuari? Nola lantzen duzue hori kaltetuekin?

Esan bezala, militanteak saiatzen dira pedagogikoak izaten, lengoaia ulertteraza erabiltzen, eta denok konpartitu ditzakegun diskurtsoak finkatzen, maximalismoak eta hitzontzikeriak saihestuz. Hala ere, zaila izaten da zenbait ohiturari uko egitea, eta ekiditen saiatu arren, horretan erortzen dira "militanteak" behin eta berriro.

Uste dugu ez dela sindikatu baten eginkizuna, helburu konkretuak erdiestea lehenetsi behar dugulako. Hala ere, sare moduan, argi dugu etxebizitza eta elikaduraren merkantilizazioa eta jabetza pribatua direla auziaren muina, eta negoziok ezin direla inondik inora gizartearen beharrian gainetik egon. Hortik aurrera, bakoitzak pentsa dezala nahi duena. Ildo horretan, ez ditugu helburu ideologiko maximalistegiak planteatzen.

Agian ez da "ideologia" barruan

sartzen, baina antolakuntzaren, borrokaren eta elkarlaguntzaren balioen inguruan kontzientziazioa litzateke gure helburuetako bat. Arazoak ez dira apalak izanda eta instituzioen aginduei men eginda konpontzen, baizik eta antolatuta eta gatazkarako prest egonda. Horren inguruan kontzientziazioa ez da diskurtso elaboratuen eta politen bitartez lortzen, baizik eta ekintza eraginkorraren eta lorpenen bitartez. Horretan ahalegintzen gara, zailtasunak zailtasun.

8. Nola kokatzen duzue zuen borroka klase gatazkarekiko? Zein harreman dago etxebizitzaren aldeko borrokaren eta klase borrokaren artean?

Nahiko argi dugu etxebizitza eta elikaduraren aldeko borroka klase borroka aurrera eramateko formak direla. Azken finean, langile klasearen interesen eta bizi baldintzak hobetzearen alde borrokatzen dugu, eta neurri batean, soldataren erosahalmenaren alde ere. Uste dugu zaharkituta daudela klase borroka lantegiko borrokara soilik mugatzen dutenak, eta adierazpen zabalagoak hartu beharko lirateke kontuan. Zentzu horretan, etxebizitza eta elikadura arazoak langile klaseari eragiten diote, eta beraz, klase borrokan ari gara zuzen-zuzenean.

Gero, sindikatuarekin hitz egiten, behin baino gehiagotan adierazi digute lantokiko borroketan aurkitzen duten ezintasuna. Izan

ere, esfortzu handiak egiten dituzte hitzarmenetan soldatak ehuneko txiki baten igotzeko, baina alferrik ari dira gero alokairuen prezioa askoz gehiago igotzen bada. Hau da, langileentzat lortzen dituzten onurak ezerezean geratzen dira, bestelako esparruetan galerak daudelako.

Etxebizitza sindikatu moduan, hutsune hori betetzea izango litzateke gure asmoa, klase borrokak dituen ahulguneetako bat betetzeko, bestelako borroka formak alboratu gabe. Argi dugu etxebizitza sindikatu moduan ez ditugula langile klasearen arazo guztiak konponduko. Alde batetik, ahalmen mugatuak dituen eragile lokala garelako, eta beste aldetik, etxebizitza eta elikaduran zentratuta ez ditugulako inondik inora langile klasearen arazo guztiak osotasunean konponduko. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu, gure gaitasun propioak garatzeaz gain, inguruko eragileekin sinergia sortzea eta, ahal den neurrian, denon borrokek elkar elikatzeko balio izatea.

9. Eta zein harreman duzue inguruko eragile sozialekin zein etxebizitza sindikatuarekin? Ba al dago saretzerik?

Badago saretze prozesu bat Euskal Herriko hainbat sindikaturekin, eta elkarren arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzen dugu, batez ere, Bilbo Handian. Horren harira, zenbait ekimen bateratu egin ditugu, ikasturte hasieran

egin genituen Bizkaiko etxebizitza sindikatuen arteko topaketak, esate baterako.

Gero, eskualde mailan, inguruko eragileekin bilera bilateralak izan ditugu geure buruak behintzat aurkezteko eta kontaktu minimo bat ahalbidetzeko. Horrekin lortu izan dugu bestelako ekimenetako jendea gure borroketara ere hurbiltzea. Gero, haiek ere gurekin kontatzen dute. Egia da oraindik prozesu luzea burutu behar dugula elkarlan hori egonkorragoa izateko, eta borroken eraginkortasunean eragin kualitatiboa esanguratsuagoa izateko, baina horretan gabiltza.

Esan beharra dago aliantzetan alboratu egiten dugula instituzioekiko elkarlana. Interpelatu egiten ditugu, noski, baina ez dugu haiekin elkarlan organikorik bultzatu nahi, eta berdin zaigu nor dagoen agintean, presionatzen jarraituko ditugula etxebizitza eta elikadura arazoak hor dauden bitartean. Gure helburuak lortzeko, beraz, instituzioekin elkarriketak beharrezkotzat ikusten ditugu, baina sarearen autonomia politikoa argi dugu.

10. Oraintxe bertan, zertan zabiltzate lanean?

Oraintxe, etxetik kaleratuak izateko zorian dauden 18 kideen egoera salatzen ari gara, arrazoi ezberdinak direla medio: dirurik ez, indarkeria matxista, babes falta zerbitzu publikoen partetik, eta abar. Beraz, horien egoerei ari gatzai lehentasuna ematen.

Orain arte, saiatu izan gara sindikalgintza eta elkarlaguntzaren bitartez egoerari buelta ematen, baina bistan da ez dugula guztientzako erantzun eraginkorrik lortu. Horregatik, egoera publiko egin, eta honako exigentzia luzatu genien Basauriko zein Arrigorriagako udalei zein etxebizitzaren kudeaketarako erakunde publikoei (Etxebide, Alokabide, Bidebi, eta abar): 1) Basauriko eta Arrigorriagako Udalekin bilera, 18 auzokide horien egoera aztertzeko; 2) Udal eta erakunde horiek baliabideak jartzea 18 auzokideen eskura, horietako bat ere ez dadin kalean geratu. Gainera, 18 kide horiez gain, higiezin baten etxe huts batean bizi ziren hiru kide kaleratzeko prozeduraren berri izan dugu, beraz, horiek ere hartu beharko liriateke kontuan.

Momentuz, Arrigorriagako udalarekin bildu gara, eta egoera aztertzeko eta konponbidea bilatzeko prestutasuna adierazi ziguten Arrigorriagan erroldatuta dauden kideei dagokienez, baina ikusteke dago oraindik. Basauriko udalarekin ez dugu lortu hitz egitea. Datozen hilabeteotan, presioa eragiten ahaleginduko gara. Hala ere, egoera nahiko larria denez, konponbideak gure kabuz bilatzen ere ahaleginduko gara, gure baliabideak mugatuak diren arren.



Jarki

INDEPENDENTZIA • SOZIALISMOA



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com